



## ‘18/98 auzian’ «eskubide politiko eta zibilak jokoan» daudela dio Txapartegik

TOLOSA ▶

«Arrakasta handia»  
Carlos Peñak azken abenturan

Trasimeno lakua zeharkatu du ▶ 2

TOLOSALDEA ▶ Itxialdia burutzen ari dira auzipetuak Gernikan

SENTENTZIA ▶ «Interes politikoaren arabera izango da», dio ▶ 4

## Antolatzaileak «oso pozik» Oinkariren ‘Aspaldikotik’ emanaldiarekin

VILLABONA ▶ Jende ugari hurbildu zen Olaederrara eta harrera «oso ona» izan zuen dantza taldearen emanaldi berriak ▶ 4



XABIER ZABALO ▶  
LEITZAKO ALKATEA

«Erantzukizun handia da niretzat Leitzako alkate izatea»

846 boto lortzea «ustekabea» izan dela dio Leitzako alkateak ▶ 7

Xabier Zabalo. N. GARZIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

## HITZA Pilota Txapelketako finalak, etzi eta igandean

Igandean Beotibarren sari banaketa ▶ 5



KARLIS

## TOLOSA ▶ KIROLAK

## IÑIGO TERRADILLOS

Carlos Peña abenturazale tolosarrak Trasimeno lakuan «arrakasta handiz» burutu berri du bere azken erronka. Hain zuzen ere, Italiako zonalde horretan, Living Lakes elkarteak antolatuta, jardunaldiak egin dituzte lakuen eta hauen ekosistemak bermatzearen inguruan pasa den astean, eta ekitaldien baitan parte hartzeko gonbita luzatu zion elkarteak tolosarrari.

Larunbatean ekin zion Peña abenturari. 10:30ean abiatu zen Panicarole izeneko herriitik, eta 5 ordu eta 32 minutu behar izan zituen lakua, beti egiten duen moduan, bizkarez, igerian zeharkatzeko. Hori bai, epe horretan baldintza oso desberdinak jasan behar izan zituen. Peña berak azaldu bezala, «dehenengo 2 orduak oso egokiak izan ziren, eta dena izan nuen aldeko». Baina bide guztia ez zen hain eroso izan, eta segituan egin beharra izan zion aurre oztopo handi bati, haizeari; «12:30ean edo haizea gogor eragiten hasi zen, olatu handiak eta luzeak sortuz, eta horrek asko zaildu zuen aurrerantz egitea». Dena den, edozer gertatzen zela ere, uneoro izan zuen tolosarrak sorospen zerbitzua aldean. Azkenean, zailtasun guztien gainetik, Carlos Peña iritsi zen amaierara, harrera «beroa eta hunkigarria» egin ziotelarik jardunaldietako parte-hartzaileek eta bertaratutako agintariek. Ho-

# «Arrakasta handiz» gainditu du Carlos Peña azken erronka

Trasimeno lakua zeharkatu du bizkarrez igerian, 5 ordu eta 32 minutuko denboran; «pozik» dago emaitzarekin



Carlos Peña Lodosan, entrenamendu saio batean, Jesus Ramirez laguntzailearekin. HITZA

rien artean, Passignanoko alkatea zegoen, eta tolosarrari hiriko giltzak ere eman zizkion. Orohar, Tolosako abenturazariak aipatutakoaren arabera, «erronka ederki gainditzeaz gain, jardunaldietan ere parte

hartzeko aukera izan dut, maila handikoak eta oso interesgarriak izan dira, eta gainera elkarteak egin didan harrera oso ona izan da».

Italiara eginiko bidaia hau zehurren proiektuei buruz hitz

egiteko ere baliatu du tolosarrak. «Living Lakes elkartekoe-kin egon naiz aurrera begira-koen inguruan solasean, eta hainbat laku proposatu dizkide, baina ez ditugu erabaztu-erabaztu oraindik».

## MUSIKA ▶

## Garazi Egiguren bigarren, Euskal Herriko Kantu Txapelketan

Andele talde leitzarrak antzezpenaren sari berezia lortu zuen Miarrizteko finalean

## ERREDAKZIOA

Garazi Egiguren tolosarrak bigarren saria lortu zuen gaztetxoan mailan Miarrizteko jokatu den Euskal Herriko Kantu Txapelketan. Leitzako Andele taldeak antzezpenaren sari berezia lortu zuen. Halaber, eskualdetik joan ziren beste taldeak ere (Tolosako Ixilezinak taldea, Ikaztegietak Klara Urteaga eta Tolosako Irati Sorondo bikotea eta Villabonako Ane eta Uxue Urruzola bikotea) «oso ondo» aritu ziren, nahiz eta saririk ez eskuratu.

Hilaren 10ean izan zen Txapelketako finala, eta denera, 28 abesti entzun ahal izan ziren bertan. Txapelketak bi maila izan zituen: txikiak (6-10 urte) eta gaztetxoak (11-15) urte. Tolosako hiru partaideak Laskorain Ikastolako ikasleak ziren. Ixilezinak taldea Laskorain Abesbatzako kide batzuk osatua, Klara Urteaga eta Irati Sorondo bikotea Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleak ere badira eta Garazi Egiguren bakarlarria, berriz, Esnaola-Urruzola musika eskolako ikaslea.



Ixilezinak taldekoak Kantu Txapelketako finalean. HITZA



Klara Urteaga eta Irati Sorondo bikotea taula gainean. HITZA

## TOLOSA ▶

### KZguneak ordutegia aldatuko du

Tolosako KZguneak ordutegi aldaketa izango duela jakin arazi dute. Hain zuzen ere, hilaren 26tik uztailaren 30era arte izango da aldaketa, eta erabiltzaileek 08:00etatik 14:00etara izango dute aukera epe horretan ohiko zerbitzuak erabiltzeko.

## TOLOSA ▶

### 'Arca rusa' filma, bihar, zine forumean

Osteguneroko ohiko zine forum saioan, Alexander Sokurov-en *Arca rusa* pelikula izango da ikusgai bihar Leidor aretoan. Horretaz gain, pelikularen ostean, Borja Co-beagaren *Eramos pocos* film laburra ere izango da ikusgai Lei. Astero bezala, 19:15ean izango da lehendabiziko saioa eta 21:45ean, berriz, bigarrena.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitzza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitzza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

EKONOMIA ▶

## LAB «baikor» agertu da Adegiren eskaintzarekin

CCOOekin batera aste honetarako deitutako lanuzteak bertan behera uztea erabaki dute

E. EZEIZA

Gipuzkoako Grafikagintzako langileen hitzarmenaren negoziaketan proposamen berria luzatu zien atzo Adegik negoziaketa mahaiean dauden sindikatuei. Honen aurrean, LAB eta CCOO aste honetarako deitutako mobilizazioak bertan behera uztea erabaki zuten. Hilabeteetan aritu dira bi alderdiak elkarriketetan, eta adostasun eza dela eta, mobilizazioak egin dituzte langileek.

LAB sindikatuaren esanetan «oso baikor hartu dugu

Adegiren proposamena». Hitzarmen hau hiru urtetan egongo litzateke indarrean, hau da 2009ra arte.

Bileraren ondoren, batzarrak egin zituzten atzo arratsaldean grafikagintzako lantegietan, eta gehienetan ados agertu ziren Adegiren proposamen berriarekin. Honek langileen baldintzetako hainbat arlotan eragingo luke. Soldaten igotzean, lan-orduen gutxitzean, aparteko abolokinetan, gauekotasunean, lizentzietan, medikuntzara joateko dituzten lan orduetan eta eszedentzietan, besteak beste.

KULTURA ▶



## Kanta Cantemus Santa Klaran

**Erredakzioa** ▶ Kanta Cantemus abesbatzako emanaldia eskaini zuen igandean Santa Klara elizan. Javi Bustoren zuzendaritzapean hogeitama emakume aritu ziren kantuan. 1995ean sortu zen taldea eta XX. eta XXI. mendeetako musika abesten dituzte, baina beste garai bateko estiloak alde batera utzi gabe. IBON AZPILIKUETA

LARRAITZ EGAÑA ▶ DONOSTIAKO OSPITALEKO ONKOLOGOEA

# «Animoz baldin bazaude indar handiagoa izango duzu borrokatzeko»

Minbiziaren inguruan mintzatuko da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean, Larraitz Egaña onkologoa

ESTI EZEIZA

Minbiziaren aurkako elkarteak eta Tolosako Udalak antolatuta Minbiziaren inguruan mintzatuko da gaur 20:00etan, Kultur Etxean Larraitz Egaña sendagilea (Arrasate, 1970).

**Zer da minbizia?**

Gure gorputzeko zelula normalak hazi eta hiltzen dira era ordenatu batean. Baina zenbait faktoreren ondorioz hazitze eta hiltze hori deskontrolatu egiten da, eta behar ez diren zelula asko sortzen dira, hil behar direnak ez dira hiltzen, eta orduan zelulen pilaketa bat ematen da, tumorea deitzen dioguna eratuz. Tumore honek inguruko organoak eratzeko edo hauetara joateko ahalmena baldin badauka, orduan minbizia deitzen diogu. Beste batzuetan tumore hori ongarrria izan daiteke, ez baitu beste organoetara joateko ahalmenik.

**Egun, minbizi kasu gehiago daudela esango al zenuke?**

Zaila da esaten, seguruenik bai. Hala ere, kanpaina asko daude lehenago harrapatzeko, bestalde ingurune faktoreak daude: elikadura, tabakoa... Gauza horiek lehen ez zeuden, eta horregatik agian, gaur egun minbizi kasu gehiago dago. Denan den, gaur egun errazago harrapatzen da. Atzetan diren minbizi horiek hasierako etapan daudenak dira asko, eta agian, ezer egingo ez bagenu ere, eta hazitzen utziko bagenu, gerora ez lukete eragin kaltegarririk izango.

**Probenitu al daiteke?**

Bai, baina %100a ez. Faktore eragile batzuk daude, eta hauek sahiestuz arrisku hori gutxitu dezakezu.

**Zeintzuk dira faktore eragile horiek?**

Elikadura aldetik, grasa gutxiago jatea eta barazki eta fruta gehiago jatea. Ez erretzea, eguzkitan denbora asko ez egotea, edo hartuz gero azala babestea. Bestalde, lanbide batzuetan ingurugiroko faktore horien aurrean zaude etengabe, eta horiek gutxitzen saiatu behar da. Hala ere, minbizi kasuen portzentaia txiki bat dago zein, zelulen kontrola galtze hori oinordetzan igarotzen den. Beraz, hori ezin da saihestu. Baina, horrek ez du esan nahi gen horiek hartzeagatik minbizia izango duzunik.

**Orokorrean, zenbateraino gaintzen dute minbizia?**

Esaterako, bularreko minbiziaren kasuan %50ak edo gehiagok gaintzen du. Baina haue-

tako asko oso hasieran harrapatzen direlako da.

**Zenbat denbora behar du minbiziak garatzen?**

Normalean, zelulen aldaketa-rengatik sortzen da minbizia, eta hasten denetik, 5-10 urte igaro daitezke.

**Zeintzuk dira sintomak?**

Eragiten duen atalaren arabera ezberdinak dira. Arnas aparatuan baldin badago, sentituko duzuna da arnasa ezin zai zula igaro, eztula, egun batetik bestera afoniko zaudela... Hesteetan bada berriz, hauen erritmoaren aldaketa, normalean ez du odol jariora edo pisua galtzea... Azalean orban berri bat, koskor bat, ahoko zauri bat ongi ez sendatzea...

**Egoera psikologikoak eraginkor ba al du sendatzean?**

Zaila da esatea, baina pertsona bat osasuntsu eta animoz ongi badago indar gehiago izango du borrokatzeko. Eragin izango du eguneroko bizitzan, tratamendua hobeto ematean.

h

tolosaldeko hitza

# hitza

h

**Praktikak HITZAn irailetik aurrera**

**Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua**

Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
 Araba etorbidea, 5 behe-atzea • 20400 TOLOSA  
 tolosaldean@tolosaldecohitzza.info  
 (uztailaren 15a baino lehen)

**Higiezin Agentzia**

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

<p><b>Amasa.</b> 124m2ko etxebizitza salgai. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.</p> <p><b>Anoeta.</b> Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai dago. Garajearekin eta altzariz hornituta.</p> <p><b>Anoeta.</b> Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berritzeko.</p> <p><b>Donostia.</b> Mandasko duke kalean etxebizitza salgai dago</p>	<p>atikoarekin. Prezio ezberdinak. Eraberritua.</p> <p><b>Betelu.</b> Hiru logelako etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezin hobea.</p> <p><b>Ibarra.</b> Bi logelako etxebizitza salgai. Eraberritua. Plazaren inguruan kokatua.</p> <p><b>Irura.</b> Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Sartzeko moduan.</p> <p><b>Legorreta.</b> Ostalaritzako negozioa salgai.</p>	<p><b>Tolosa.</b> Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m2.</p> <p><b>Tolosa.</b> San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.</p> <p><b>Tolosa.</b> Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Berazubir, laugarren solairuan eraberrituta</p>
<p>etxebizitza. Igogailu proiektua onartuta.</p> <p><b>Tolosa.</b> Berazubi auzoan, laugarren solairuan etxebizitza, eraberritua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Gernikako Arbolan, 35 m2ko merkataritzarako lokala, 35 m2ko sotoarekin.</p> <p><b>Tolosa.</b> Etxe atxikia salgai. Bi bizitzatan banatua, garaje eta txokoarekin.</p> <p><b>Tolosa.</b> Belate ingurua, azken garaje txikiak, eraikuntza berrikoak.</p>		

'18/98 AUZIA' ▶

# Txapartegi: «Eskubide zibil eta politikoak daude jokoan»

Sententzia «interes politikoaren arabera» izango dela dio auzipetu asteasuarrak

IMANOL GARCIA

18/98 auziko inputatuak itxialdia burutzen ari dira aste honetan Gernikako (Bizkaia) Elai-Alai aretoan. Horien artean dago Nekane Txapartegi asteasuarra. «Ikusi dugu epaiketak ez duela berme eta oinarri juridikorik izan», azaldu du Txapartegik, «eta orain, epaiketa bezala, sententzia ere politikoa izango da». Hain justu, auzipetuen helburua eskubide zibil eta politikoak «jokoan» daudela ohartaraztea da. «Ez bakarrik auzipetuek, Euskal Herri osoaren ere bai».

Talde iraunkor bat dago itxialdia egiten eta beste auzipetu batzuk txandaka egun batzuk igarotzen ari dira bertan.

Txapartegi atzo eta gaur dago bertan. Etzi egingo dute itxialdiaren amaiera eta bertan auzipetu gehienak bilduko dira. Manifestazioa eta ekitaldia egingo dute egun horretan. Egutero elkarretaratzeak egingo dituzte, herritarren artean informazioa zabaltzeko eta eragile ezberdinekin biltzeko. Atzo, esaterako, herri mugimenduekin elkartzeko ziren eta gaur adierazpen askatasunaren ingurukoekin.

Itxialdiaren helburua nagusienetako bat, epaiketan gertatzen dena gizarteratzea da. Bestalde, azkenaldian komunikabideetatik «nahiko desagertuta» daudela dio Txapartegik eta egitasmo honekin eragile ezberdinen babesa jasotzeko.



Itxialdia hasi aurretik agerraldia egin zuten auzipetuek. O. CABELLO

gain, berriro ere auzia kalean jartzea da beraien nahia. Epaiketan zehar auzipetuen artean izandako giroari jarraipena

ematen ari direla dio Txapartegik. «Orduan erakutsitako borroka eta duintasuna mantentzen ari gara», azaldu du astea-

suarrak. «Batera gaudela erakusten ari gara eta epaiketan lortutako harremana mantentzen dugu».

## Epaiaren zain

Auzipetuek hainbat berri jaso dituzte epaia aterako den egunari buruz. «Filtrazio asko egon dira. Hasieran hauteskunde ondoan izango zela esan zen, ekainean zehar. Gero uztailan izango ote zen eta orain jasotako azkena da udazkenean izango dela da». Hala ere, sententzia «interes politikoaren arabera» izango dela argi du Txapartegik. «Bahitu politikoak gara. Epaiketa politikoa izan da eta epaia ere horrelakoa izango da».

Kontrako sententzia espero du Asteasuakoak. «Espainiako justizian pertsonalki ez daukat esperantzarik. Torturapean hartutako deklarazioak hartzen ditu oinarritzat Espainiako Auzitegi Nazionalak». *Jarraia-Haika-Segi auzian* izandako epaia espero dezaketaren adibide bezala jartzen du.

## VILLABONA ▶ KULTURA

# Oinkari taldekoak «oso gustura» 'Aspaldikotik' obraren estreinaldiarekin

Jendea erruz joan zen eta harrera ona egin zioten dantza taldearen emanaldi berriari

I. GARCIA

«Oso gustura gaude emanaldiarekin». Eneko Arteaga Oinkari dantza taldeko arduradunak larunbat gauean aurkeztu zuten *Aspaldikotik* emanaldiaren balantze oso positiboa egin du. Estreinaldia zen, herrian, eta ikusleek ez zuten huts egin. «Sarreraren eta gonbidapenen artean 850 lagun inguru izan ziren Olaederran», dio Arteagak.

Edozein estreinaldi bezala, izan ziren zuzendu beharrekoak, baina orokorrean «oso gustura» daudela nabarmentzen du Arteagak. «Ostiral gauean egin genuen entsegu orokorrak asko lagundu zigun emanaldia borobiltzen». Ikusleek esandakoa ere oso gogoan hartzen du dantza taldeko arduradunak. «Emanaldiak dexente irauten du, ordubete eta 43 minutu, eta jendeak esan zuen arretrez jarraitu zuela eta ez zitzaioala luzea egin».

Jendearen arreta lortzen lagundu zuen Juan Kruz Igerabidek osatutako istorioa. «Igerabidek berak zoriondu gintuen emanaldia eta gero. Oso gustura gaude nola gelditu zen emanaldia istorio bat txertatuz».

Hurrengo emanaldia Tolosan egingo dute Oinkarikoek, San Joan jaien baitan. Igandean izango da, 23:30ean, Euskal Herria plazan. «Tolosa guretzako oso plaza garrantzitsua da», dio Arteagak.

## Omenaldia

Emanaldia bukatu eta gero, ezustekoa izan zen batez ere Eneko Arteagarentzat, dantzari omenaldia egin baitzieten makila bat oparituz, azken urteetan egindako lanarengatik. «Ez nuen espero», dio Arteagak. «Oso hunkigarria izan zen. Dantzari egin zidaten omenaldia eta horrek asko esan nahi du niretzat. Aurrera jarraitzeko oxigenoa izan da».



'Aspaldikotik' emanaldiaren mementu bat. KARLIS



Dantzari omenaldia egin zioten Eneko Arteagari. KARLIS

## ANOETA ▶

### 'Zahartzaroa eta sexua' hitzaldia Alkartasunan

Ane Oiartzun erizainak *Zahartzaroa eta sexua* hitzaldia emango du bihar, 18:30ean, Alkartasuna biltokian, Kutzak antolatuta. Zahartzaroen sexualitateak duen garrantziari buruz aritzea da solasaldiaren helburuetako bat.

## TOLOSA ▶

### Udal Musika Eskolako ikasleen emanaldia

Tolosako Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute gaur, 19:30ean, musika eskolako aretoan. Pieza ugari entzun ahal izango dira eta tartean orkestra txikia eta akordeoi taldea eta talde txikia ariko dira.

## iragarki laburrak ▶

**LANA**  
Mantenu teknikaria. Mantenu lanetarako teknikaria. Iparpet. Lekunberri-Leitza. Informazio eta eskaintza gehiago  
[www.iparpet.com/webgunean](http://www.iparpet.com/webgunean).

IV. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶



Nagusien mailako final-laurdena jokatzeko, Beotibarren; eskuinean, Renobales. N. GARZIA

# Eskolarren finalak etzi, eta beste guztiak igandean izango dira

Eskualdeko pilotariak izango dira jokatzeko, bai Adunan etzi, eta baita Beotibarren igandean; zazpi mailetatik, seitan

**NEREA URBIZU**

IV. HITZA Pilota Txapelketako finalak aste honetan izango dira. Etzi, Adunako pilotalekuan jokatuko dituzte 19:30ean, benjaminak, alebinek eta infantilek, binaka.

Igandean, berriz, Tolosako Beotibar pilotalekuan, kadeteen, jubenilen, etorkizunekoen

eta nagusien finalak izango dira 10:00etatik aurrera. Ondoren, 7 mailatako txapelduneri saria banatuko diete. Horretarako, Alegiko, Albizturko, Aduna, Bidegoian, Berastegi eta Tolosako Udaletako ordezkariak izango dira, besteak beste.

Finalera eskualdeko hainbat eskola iritsi dira: Erniope eta Zazpi-Iturri eskolarretan, eta

Anoetako eta Aurrera-Saiazko pilotariak gaztetxo eta gazteen mailatan.

Etorkizuneko eta senior mailako partidetan izen handiko pilotariak ibili dira, eta ondorioz, final handiak espero dituzte igandean. Lehengo urtean aritutako lau pilotari profesionalen mailan dabilta: Uriarte, Iza, Belloso eta Apraiz.

**LUIS GALARRAGA ▶ HITZA TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA**

«Pilotariei ere gustatzen zaie jendea haiek ikustera datorrela sentitzea»

Luis Galarraga (Bidania, 1956) Aurrera-Saiatz pilotalekuko delegatua da, eta HITZA Pilota Txapelketako antolatzaileetako bat. Aurtengo txapelketarekin ere «gustura» dago.

**Zer moduz doa Txapelketa?**  
Ondo. Eskolarren mailakoa ondo joan da; jokalariek guztiak jokatu dute, egutegia antolatuta bezala. Etorkizunekoena eta nagusiarena zailagoa da, beste hainbat txapelketa aldi berean daudelako, eta asteburuetan interesatzen zaigu jokatzeko, beste txapelketa guztiei bezala. Gainera, aurreko nahiko ondo asmatu dugu bikoteekin: parekatuta egon dira.



P. RENOBALDES

**Ikusleak ere pilotalekuetara hurbildu dira?**

Bai. Jubilatutako Beotibarrera gustura datoz, eta pilotariei ere gustatzen zaie, jendea haiek ikustera datorrela sentitzea. Pilota ikustea ondo pasatzeko modua da.

**Etzi eskolarrenak, eta igandean beste guztien finala. Sari banaketa nola?**

Igandean 7 mailatako sariak banatuko ditugu, eta Alegiko, Albiztur, Aduna, Bidegoian, Berastegi eta Tolosako Udaletako ordezkariak izango dira. Aurretik, eskualdeko pilotari profesional batzuk hurbiltzeko asmoa dugu. ◀

**FINALISTAK ▶**

**Benjaminak.**



Martinez-Errandonea.



Peña-Isturbe.

**Alebinak.**



Iribarria-Goitia.



Mujika-Iruretagoiena.

**Infantilak.**



Azketa-Arratibel.



Gailurralde-Goitia.

**Kadeteak.**



Ezkurdia.



Jauregi.

**Jubenilak.**



Galartza-L. Gebara.



Eskudero-Sagaseta.

**Etorkizunekoak.**



Irazusta-Tellebea.



Muguruza-Mitxelena.

**Nagusiak.**



Ongai-E. Galarraga.



Renobales-I. Bengoetxea.

LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

# 3 zinegotzik kargua hartu arren, alkaterik gabe dago Udala

Joxe Martin Deustok (Bide Berriak), «herriak hautatutako ordezkapena aurrera eramateko» konpromezua hartu du



Bide Berriak 3 zinegotziek idazkaria eta EAE-ANVko kideak aurrean zituztela hartu zuten kargua. A.I.

## ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako Udalak alkaterik gabe jarraituko du. Herenegun egindako udal batzarrean, Bide Berriak Hautesle Elkarteak 3 zinegotzi kargu hartu zituen, baina alkatetza karguari uko egin zion.

«Nahiz eta alkate karguari uko egin, ez da galtzen zinegotzi izaera. Beste lau zinegotzi ere falta dira udal korporazioa osatzeko. Kasu honetan, inork alkatetza kargua hartzen ez badu, eta gainerako lau hautesle agertzen ez badira, egingo den hurrengo Udal batzarrean, ezohikoa eta hilabete barru izango den horretan, galdetu beharko zaie zinegotzi hauei

ea kargua hartuko duten eta alkatetza kargua ere hartuko ote duten. Bitartean, egoera ezohikoa delako, Gipuzkoako Foru Aldundiari horren berri eman-go zaio egokiak izan litezkeen neurriak har ditzan» hau esanaz, herenegun amaitutzat eman zuen prozedura idazkariak.

## Bi zerrenden borondatea

Udal batzarrean aurkeztu ziren bi zerrendek, EAE-ANVrenak eta Bide Berriak Hautesle Elkartearenak, euren borondatea zein den azaldu zuten prozeduraren barnean nahiz behin hau amaitu ondoren. Joxe Martin Deustok, Bide Be-

riak Elkarteko zerrendaburuak, idatzi bat irakurri zuen zinegotzi kargua hartu ondoren, alkatetzari uko egiteko arrazoia zein zen argituaz; «gure herrian bakean eta gizatasunean oinarritutako bizikidetzan sinisten dugulako, uko egin diot Leaburu-Txaramako Udaleko alkate izendatzeari». Behin prozedura amaitu ondoren, Joxe Kruz Goñik (ANV-EAE) hartu zuen hitza, Joxe Martin Deustorengana zuzentzeko. «Lehen larunbatean esan nuen bezala herriaren hitza errespetatzeko eskatu behar dut. Eta baita galdera bat luzatu ere Joxe Martini: gelditzen diren beste lau zinegotzi uko egin behar al dute?».

Deustok, oraindik gai hori ez zutela eztabaidatu erantzun zuen, «EAErekin biltzeko eta irtenbide bat bilatzearen aldekoak» direla gaineratuz. Goñik hitz hauek ontzat hartu zituen arren, «herrian bakea herritarren hitza errespetatzea dela, hau da, Udalean 4 eta 3 hautesle siren banaketa» zela gogoratu zion Bide Berriak Elkarteko zerrendaburuari. Hau praktikan jartzeko 182.2 artikulua aldarrikatu zuen EAE-ANVren izenean hitz egin zuen Goñik. Deustok, «bidea sakonean aztertu beharreko» gauza bat zela aipatu zuen, «artikulu horren aplikazioa posible bada, aplikatuko dugu eta beste zozer posible baldin bada, hori aurrera eramango dugu, inolako dudarik gabe, herri honek hautatutako ordezkapena aurrera eramateko». Gauzak horrela, hilabete izango dute herriko bi zerrendek euren artean adostasun batetara iristeko.

## Hauteskunde ondorena

Leaburu-Txaramako udal hauteskundeetara hiru zerrenda aurkeztu ziren; Leaburu-Txaramako Abertzale Sozialistak, Eusko Abertzale Ekintza (ANV) eta «Bide Berriak» Hautesle Elkarteak. Espainiako Alderdien Legea aplikatuz, lehen biak legez kanpo utzi zituen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak. Honen ondorioz, Leaburu-Txaraman aukeratu beharreko 7 zinegotziak Bide Berriak Hautesle Elkartearen esku geratu ziren, 118 botorekin. Legez kanpo utzitako EAE-ANVren 132 bozkek kontuan hartuta ordea, udalean 4 hautesle lortuko litzukete hauek, alkatetza barne, eta Bide Berriak Hautesle Elkarteak aldiz, 3.

Hilaren 16an, Leaburu-Txaramako korporazioa aukeratzeko egunean, nahikoa hautesle aurkeztu ez zirenez, herenegunerako atzeratu zen prozedura. Herenegun Bide Berriak Hautesle Elkarteak hartutako erabakiarekin, alkatetzari uko egitearekin, «ezohiko egoera» honen irtenbidea hilabete atzeratu da.

POLITIKA ▶

## Argitzen doaz Lizartza eta Elduango udalak

Regina Otaola: «Ostiralean edo astelehenean osatuko da Lizartzako Udala»



Regina Otaola (PP). N. URBIZU

## ASIER IMAZ

Espainiako Alderdien Legearen arabera, Elduain eta Lizartzan PPren zerrendak izan ziren aurkeztu ziren bakarrak. Bi herri hauetan, EAE-ANVk lortu zituen boto gehien, baina legez kanpo utzi zituztenez PPren esku geratu ziren bi herrietako Udalak. Hala eta guztiz ere, PPren zerrendek uko egin zitoten karguari, eta alderdi honek jende berriarekin egindako zerrendak aurkeztu zituen, hala nola, Regina Otaola jarri zen Lizartzako zerrendaburu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakin arazi duenez, Elduango zerrenda aldaketa ez da onartua izan, ondorioz eta «oraingoz», orain arteko udal korporazioak (EAJ) jarraituko du funtzioetan.

Lizartzan berriz, onartua izan da PPren lehen zerrendaren uko egitea eta Gipuzkoako Boletín Ofizialak atzo eman zuen horren berri, Koldo Azkoitia Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailearen esanetan.

Regina Otaolak (PP), «askatasuna berreskuratzea eta herritarren bizitza hobetzea» dela bere helburua jakin arazi zuen atzo. Horretaz gain, «hemendik lau urtera 27 boto izan beharrean gehiago izango direnaren» ustea azaldu zuen. Kargu-hartzea berriz, ostiral honetan edo astelehenean izango dela jakin arazi zuen.

## GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

### ► Eskatzen da:

- ▶ Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- ▶ Euskaraz ondo egitea.
- ▶ Izaera dinamikoa izatea.
- ▶ Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculum, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: [goierriko@goierrikohitza.info](mailto:goierriko@goierrikohitza.info)

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behe. 20200 BEASAIN**



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

XABIER ZABALO ▶ LEITZAKO ALKATEA

# «Leitzako alkate izatea niretzako erantzukizun handia da»

Joan den larunbatean Leitzako alkate izendatu zuten Xabier Zabalo eta datozen 4 urteetan bere lan taldearekin «herriko Udala aurrera» aterako du

NAIARA GARZIA

Xabier Zabalo (Leitza, 1981) alkate izendatu zuten joan den larunbatean egindako ekitaldian. Beraz, datozen 4 urteetan Leitzako alkate izanen da. Goi-mailako informatika eta telekomunikazio ikasketak eginak ditu eta 4 urte hauetan bere lantegiko lana alkatetzarekin uztartuko du.

**Duela 4 urte 533 boto balio-gabeak lortu zenituzten. Aurten ANVk 846 lortu ditu. Igoera hori espero al zenuten?**

700 inguru boto lortuko genituela pentsatzen genuen. Ezker abertzaleak beti hauteslegune bat dauka, 533 bozetakoa, eta gero legala izateak eta hautagai-zerrendak ere zerikusirik izan du, baina 846 boto lortzea ustekabe handia izan da guretzat. Historikoki lortu dugun emaitzaik hobereena izan da.

**Gehiengo osoa lortu duzue, eta honen arabera, zuek hartutako erabakiak aurrera joanen lirateke.**

Hori lau urtetan aplikatzea arriskutsua izan daiteke. Gehiengo osoa oso eroso da, baina aldi berean, arriskutsua. Gure asmoa ez bagenu bezala jokatzeko da.

**EA eta UPNrekin elkarlanean aritzeko asmoa duzue, beraz?** Bai, hasteko batzordeak banatzeo asmoa daukagu, eta denak elkarlanean aritzeko.

**Nola bizitu zenuen kargu-hartzea?**

Ni pertsona lasaia naiz, baina urduri jarri nintzen. Ekitaldi amaieran jendea oso hunkituta zegoen, eta ni ere hunkituta egin nintzen.

**Zer azpimarratu zenuen irakurrirako hitzaldian?**



N. GARZIA

## KARGU-HARTZEA

«Ekitaldi amaieran jendea oso hunkituta zegoen eta ni neu ere hunkitu egin nintzen»

Lehenik eta behin herritar guztiei eskerrak eman nizkien, bozkatu nautenei eta baita bozkatu ez nautenei ere, denek alkatea izango bainaiz. Udalaren inguruan mintzatu nintzen gero, eta politikari dagokionez Euskal Herriaren egoeraren inguruan eta bake prozesuaren inguruan ere aritu nintzen. 4

## GEHIENGO OSOA

«Gehiengo osoa oso eroso da, baina aldi berean, arriskutsua; gure asmoa ez bagenu bezala jokatzeko da»

puntu horiek azpimarratu nituen. **Azken legealdian inguruan ze balorazio egiten duzu?** Oso balorazio zaila da. Hasiere hasieratik ezker abertzalea kanpoan gelditu zen eta nik uste dut ez dutela onartzen ezker abertzaleak 533 pertsona horietaz gain herri honetan

## 846 BOTO

«846 boto lortzea ustekabe handia izan da guretzat. Historikoki lortu dugun emaitzarik hobereena izan da»

daukan indarra. Ezker abertzalea herrian leku askotan sartuta dago, eta historikoki herri honetako dinamikan sartua egon da. Eta ezker abertzalea kanpoan uzteak ez du soilik udal mailan eraginik, askoz ere konplexuagoa da. Nire ustez egoera zaila bizitu dute eta oposizio handia egin zaie Uda-

lean. UPNk asko markatu du 4 urte hauetako martxa, 5 zinegotzi izatean. Horregatik jende askok esaten du urte hauetan UPNk agindu duela.

**Hauteskundeetan Aralarrek ez du zinegotzirik lortu. Azken orduko etxebizitzaren planarengatik izan al da?**

Nire ustez hori beste gauza bat izan da, hainbat gauzen artean. Aralarrek Larrainek 533 bozka izatea ez duela ulertu pentsatzen dut. Gainera, erabaki guztietan (etxebizitzaren gaian, ikurrinaren gaian...) ezker abertzalearekin ez kontatzeak herrian oposizio handia sortu du, herriko gehiengo duen taldearen iritzia kontuan hartu gabe zenbait erabaki hartzea, alegia.

**Herriak ze behar du?**

Nire ustez etxebizitzak garrantzi handia dauka. Arlo honetan bi asmo ditugu. Alokairua bultzatu nahi dugu gobernuaren zerbitzu baten bitartez. Zerbitzu hau onuragarria da bai etxe bat alokatu nahi dutenentzat, baita jabeentzat ere. Batez ere azken hauentzat da onuragarria eta honen inguruko informazioa banatzeko asmoa daukagu. Kalkulatu genuenaren arabera, 74 etxebizitza gutxienez hutsik badaude Leitza, eta asko da. Eta gero etxebizitzaren inguruan herriak ze planteamendu behar duen aztertu nahi dugu eta horretarako aurrena azterketa bat egingo dugu. Ezin ditugu Leitzako jendearentzat etxebizitzak egin gero jendeak ekonomiko-ki ordaindu ezin baditu. Mila eurotako soldata izanda nola erosiko dute gazteek 50 milio-ko pisua, ba?

**Pozik zaude sortutako lan taldearekin?**

Bai, jende gaztea gara, prestatua, eta ilusioa daukagu. Errelebu pixkanaka sartu ordez kolpean egin dugu eta nire ustez jendeari gustatu zaio.

**Alkate izateak zuretzako zer suposatzen du?**

Niretzako alkate izatea erantzukizun handia da. Gainera Leitza herri txikia izan arren, egunkarietan eta telebistan jarraipen handia egiten zaio.

hilberria ▶

## Inazio Garmendia Goiburu

'Kortatu', 102 urte ('Korta' zenaren aita)

Udaberria, lurra ermetzen kuku bason eta zu, txorietan txori, non zabilta kantuan?

Etxekoak

Semea: Miel Mari eta Lurdes Esnaola; bilobak: Joxi eta Maipi, Mari Paz eta Fernando; birbilobak: Sarai, Izar, Iraitz eta Enaut. Hileta meza GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Salvador Deunaren elizan egingo da.

LEGORRETA, 2007ko ekainaren 20a



hilberria ▶

## Inaxio Garmendia Goiburu

(Bixenta Zuriarrain Etxeberriaren alarguna)

Atzo hil zen, Legorretan, 102 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere seme-alabak: Maritxu eta Joxe Agirre (†), Antonio eta Maria Pilar Usabiaga, Miguel Mari eta Lourdes Esnaola, Jose eta Mari Karmen Eizagirre; Jose Maria eta Rosa Sanz, Mari Karmen eta Pako Baraibar, Julian eta Malen Armendariz, Manuel Mari (†); bilobak; birlobak eta gainerako ahaideak.

Hileta GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Legorretako parroki elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua arratsaldeko 15:00ak arte Tolosako bellategian izango da; ondoren erraustu egingo da.

LEGORRETA, 2007ko ekainaren 20a



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 20a, asteazkena ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzera

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(balantzak argitzea, harpidetun egiteko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** 19:30ean Musika Eskolako Areto Nagusian Musika Eskolako ikasleen kurto bukaerako kontzertua.

**Tolosa.** Minbizitari buruzko hitzaldia eskainiko du Larraitz Egaña medikuak 20:00etan, Kultur Etxean.  
**Villabona.** 1995 eta 2003 urte bitartean jaiotako haurrentzako udaleku irekiak izango dira ekainaren 25etik uztailera 20ra, goizez: jolasak, eskulanak, irteerak hondartza eta mendira, eta abar. Izen ematea Aiztondoko bulegoetan egin behar da goizez, edo telefonoz.  
**Zizurkil.** Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, udal bulegoetan.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Nestor Basterretxearen eskulturak eta Iñaki Epelderen pinturak ikusgai izango dira Aranburu Jauregian, CIT-TE Eren 40. urtemugako ekitaldien barruan. Bisita gidatuak izango dira ostegunetan, ostiraletan eta larunbatetan 19:00etan.

**Tolosa.** Uztailaren 7ra arte, Aranburu jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleen lanen erakusketa.

**Tolosa.** Hilaren 28an hasi eta lau egunetan XIX. San Juan areto futboleko txapelketa jokatu da. Izen-ematea Shanti kirolak-en hilaren 23a baino lehen.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
20:00-21:00. Iraulii uhinak.  
21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Ikasturteari agur

**TOLOALDEA ▶** Ikaztegieta eta Anoetan ikasturteari agur esan diote asteburuan; kirola, dantza, jolasak eta bazkaria ez ziren faltatu



Ikaztegieta ikasleak, plazan jarritako puzgarrietan saltoka. N. URBIZU

**NEREA URBIZU**

**N**ekea irakasleek, eta nekea ikasleek. Ekaina ez da hilabete xamurra ez batzuentzat ezta besteentzat ere. Ikasturteari agur esateko alaitasuna da nagusi herrietan: asteburu honetan, Ikaztegieta eta Anoeta agurtu dira ikazteixeaz. Kirola izaten ohi da haur eta gaztekoek energiak ateratzeko bide onenetako bat eta hori izan zen bi herrietan. Anoetan, esaterako, zaku karrera egin zuten eta jolasak arratsalde partean, baita ibilaldi neurtuare. Ikaztegieta, berriz,

puzgarrietan saltoka ibili ziren arratsaldean, eta eguerdian, berriz, futboleko nahiz pilotan aritu ziren. Dantzarako tartea ere izan zuten. Musika ere falta ez den elementua da jai giroan eta hau ere present egon zen bi plazetan: Ikaztegieta *Egin Kantu* saioa abestien karaokea egin zuten, jende askoren aurrean. Anoetan, berriz, kalejira izan zen trikiritxa eta guzti. Bazkariak garrantzia du jaietan ere eta guraso zein ikasleek gozatu zuten mahaiaren bueltan. Datoren irailan ziur asko, ekaineko jaiaren pentsatzen ariko dira batzuk...



Anoetan, zaku karreran hasteko irrikitan. HITZA



Ikaztegieta eskolan prestatutako karaoke saioa eskaini zuten. N. U.



Anoetan, kalejira aritutako trikiritari batzuk pieza bat jotzen. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Maddi (Gaztelu).  
Gaur 6 urte. Zorionak etxekoan partetik, muxu bana.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**  
**Urtebetez, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tartea

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA